

>>>

elkartu

Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa



AGENDA ETA DESGAITASUNA

BEGIRADA BAT GIZA ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK

AURKIBIDEA

4 or.

01

SARRERA

6 or.

02

DESGAITASUNA
DUTEN
PERTSONEN
ESKUBIDEEI
BURUZKO
KONBENTZIOA

10 or.

03

GARAPEN JA-
SANGARRIRAKO
HELBURUAK
(GJH)

18 or.

04

GJH ETA DES-
GAITASUNA
DUTEN PERT-
SONEN ESKUBI-
DEEI BURUZKO
KONBENTZIOA:
BI TRESNA ETA
XEDE BERA

28 or.

05

KONBENTZIOAREKIN
ETA GJH-EKIN BAT
DATOZEN POLITIKAK
SUSTATZEKO
NEURRIEN
DEKALOGOA

>> 01

SARRERA



Nazioarteko testuinguru sozial, politiko eta ekonomikoak dituen ezaugarri nagusiak ezegonkortasuna eta eraldaketa sakonak egiteko premia dira. Ondorioz, arau- eta programazio-erreferenteak behar ditu, aurrera egin ahal izateko desberdintasunak ezabatzeko eta klima-aldaketaren aurka ingurumena babesteko bidean.

Horretarako, lagungarriak dira, hain zuzen ere, Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako 2030 Agendaren bidez hedatzen diren Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa. Bi tresna horiek ezinbestekoak dira eskubideen ikuspegia kontuan hartuta pertsona guztien ongizate pertsonala eta soziala bermatuko duen gizarte inklusiboagoa eraikitzeko, jatorria edo maila edozein dela ere.

Gidaliburu honek Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa eta Garapen Jasangarrirako Helburuak aurkezten ditu, dimentsio guztiak kontuan hartuta, eta bi tresna horien azterketa konparatiboan sakontzen du, elementu, helburu eta berme komunak zehaztuz. Horretarako, Konbentzioaren artikulua eta helburu bakoitza osatzen duten jomugak zehatz-mehatz aztertzen ditu, dauden erronkak eta aitortutako eskubideak bat etor daitezen, politika publikoak eraginkorrak eta nazioarteko erakundeen aginduekin koherenteagoak izateko.

Dokumentu hau, gauzatuko diren politikak erabakitzeko erantzukizuna duten erakunde publikoentzako da, baina baita eragile publiko eta pribatuentzako ere (administrazio publikoetako teknikariak, Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak, desgaitasuna duten pertsonak, etab.), beren lan profesionalaren eta/edo boluntarioaren bidez gizartea eraldatzen laguntzen baitute, gizarte-kohesioan aurrera egiteko eta diskriminazioa eta bazterkeria ezabatzeko.

>> 02

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA



**Desgaitasuna duten
Pertsonen Eskubideei
buruzko Konbentzioa
nazioarteko akordio
bat da, 2006ko
abenduaren 13an onartu
zena Nazio Batuen
egoitzan (New York),
eta 2008ko maiatzaren
3an jarri zen indarrean,
estatuek sinatu eta
berretsi ondoren.
Beraz, nahitaez bete
beharrekoa da.**

Konbentzioak dakartzan
berritasunen artean,
honako hauek dira
nabarmenenak:

1

Desgaitasuna giza eskubideen kontua da; izan ere, desgaitasuna duten pertsonak ez dira karitatezko edo laguntzarako politiken "hartzailleak", giza eskubideen "subjektuak" baizik.

2

Eredu mediko batetik abiatzen den desgaitasuna ulertzeko modua, hau da, nagusiki osasun-alderdiak eta alderdi asistentzialistak kontuan hartzen dituen, gainditu egiten du, gizarte-eredu bat ezartzeko, non desgaitasunaren eragileztat elkarrekintza hartu behar baita. Elkarreragin hori, batetik desgaitasuna duten pertsonen, eta bestetik, pertsona horiek gizartean gainerakoen baldintza berberetan bete-betean eta eraginkortasunez parte hartzea saihesten duten jarrera- eta inguru-oztopoen artekoa izango da.

3

Aitortzen du garrantzitsua dela desgaitasuna duten pertsonentzat beren autonomia eta independentzia indibiduala, beren kabuz erabakiak hartzeko askatasuna barne.

4

Konbentzioaren arabera, desgaitasuna duten pertsonak aukera izan behar dute politika eta programei buruzko erabakiak hartzen diren prozesuetan aktiboki parte hartzeko, baita zuzenean eragiten dietenetan ere.

Konbentzioaren helburua da desgaitasuna duten pertsona guztiek giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak berdintasun-baldintzetan eta bete-betean balia ditzaten sustatzea, babestea eta bermatzea, eta pertsona horien berezko duintasuna errespetatzea. (1. art)



Konbentzioak aitortzen
dituen eskubide nagusiak
honako hauek dira:

- Berdintasuna eta diskriminaziorik eza
- Irisgarritasuna
- Bizitzarako eskubidea
- Aitorpen bera legearen arabera
- Justiziarako sarbidea
- Pertsonaren askatasuna eta segurtasuna
- Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo umiliagarrien aurka babestea
- Esplotazioaren, indarkeriaren eta abusuaren aurka babestea
- Osotasun pertsonala babestea
- Joan-etorriak egiteko eta nazionalitatea izateko askatasuna
- Modu independentean bizitzeko eta komunitatean parte hartzeko eskubidea
- Mugikortasun pertsonala
- Adierazpen- eta iritzi-askatasuna eta informazio eskuratzea
- Pribatutasuna errespetatzea
- Etxea eta familia errespetatzea
- Hezkuntza
- Osasuna
- Gaikuntza eta errehabilitazioa
- Lana eta enplegua
- Bizi-maila egokia eta babes soziala
- Bizitza politikoan eta publikoan parte hartzea
- Kultura-bizitzan, jolas-jardueretan, aisialdian eta kirolean parte hartzea

>> 03

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK (GJH)



Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) elkarri lotutako 17 helburu orokor dira, pertsona guztientzako etorkizun hobe eta jasangarriagoa lortzeko diseinatuak. Ekintzarako dei unibertsa da, pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko, eta mundu osoko pertsonen bizitzak eta etorkizuna hobetzeko.

2015ean, Nazio Batuetako estatu kide guztiek 17 helburu onartu zituzten Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren zati gisa. Agenda horretan, helburuak 15 urtetan lortzeko plan bat ezartzen da.

Hauk dira Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak:



Helburu bakoitzak lortu beharreko jomuga zehatzak ditu. Honako hauak dira, zehatz-mehatz:



- 1.1 jomuga: Muturreko pobrezia desagerraraztea.
- 1.2 jomuga: Pobrezia erlatiboa dimentsio guztietan murriztea.
- 1.3 jomuga: Babes sozialerako sistema eragileak ezartzea.
- 1.4 jomuga: Oinarrizko zerbitzuetarako eta finantza-baliabideetarako sarbidea bermatzea.
- 1.5 jomuga: Erresilientzia ingurumen-hondamendietan, hondamendi ekonomikoetan eta sozialetan.
- 1.A jomuga: Erresilientzia sustatzea ingurumen-hondamendietan, hondamendi ekonomikoetan eta sozialetan.
- 1.B jomuga: Pobrezia desagerrarazteko arau-esparrua sortzea.



- 2.1 jomuga: Gosea desagerraraztea.
- 2.2 jomuga: Malnutrizio mota guztiak desagerraraztea.
- 2.3 jomuga: Nekazaritzako produktibitatea eta diru-sarrerak bikoiztea eskala txikian.
- 2.4 jomuga: Nekazaritza-jardunbide jasangarriak eta erresilienteak.
- 2.5 jomuga: Hazien aniztasun genetikoari eustea.
- 2.A jomuga: Nekazaritzako inbertsioak handitzea.
- 2.B jomuga: Munduko nekazaritza eta abeltzaintzako merkatuen egonkortasuna.
- 2.C jomuga: Elikagaien prezioen hegazkortasuna kontrolatzea.



- 3.1 jomuga: Amen hilkortasun-tasa murriztea.
- 3.2 jomuga: Haurren hilkortasun-tasa ezabatzea.
- 3.3 jomuga: Gaixotasun kutsakorrek desagerraraztea.
- 3.4 jomuga: Gaixotasun ez-kutsakorrek eta gaixotasun mentalak murriztea.
- 3.5 jomuga: Drogen eta alkoholaren abusuak prebenitu eta tratatzea.
- 3.6 jomuga: Trafiko-istripuak murriztea.
- 3.7 jomuga: Sexu- eta ugalketa-osasunerako eta familia-plangintzarako sarbidea bermatzea.
- 3.8 jomuga: Estaldura unibertsala eta sendagaietarako sarbidea lortzea.
- 3.9 jomuga: Kutsadura kimikoak eta poluzioak eragindako heriotzak murriztea.
- 3.A jomuga: Tabakoa kontrolatzea.



- 4.1 jomuga: Lehen eta bigarren hezkuntzaren kalitatea bermatzea.
- 4.2 jomuga: Eskolaurreko hezkuntzarako sarbidea eta haren kalitatea bermatzea.
- 4.3 jomuga: Goi-mailako prestakuntzarako berdintasunezko sarbidea bermatzea.
- 4.4 jomuga: Enplegua lortzeko gaitasunak handitzea.
- 4.5 jomuga: Genero-desberdintasuna eta kolektibo kalteberak ezabatzea.
- 4.6 jomuga: Alfabetatzea eta aritmetikaren ezagutza bermatzea.
- 4.7 jomuga: Garapen Jasangarrirako Hezkuntza Globala sustatzea.
- 4.A jomuga: Hezkuntza-instalazio inklusiboak eta seguruak hobetzea.
- 4.B jomuga: Goi-mailako irakaskuntzarako bekak gehitzea.
- 4.C jomuga: Irakasleen kualifikazioa hobetzea.



- 5.1 jomuga: Diskriminazioa desagerraraztea.
- 5.2 jomuga: Genero-indarkeria mota guztiak ezabatzea.
- 5.3 jomuga: Haurren ezkontza eta emakumeen genitalen mutilazioa ezabatzea.
- 5.4 jomuga: Zaintza-lana eta etxeko lana aitortzea.
- 5.5 jomuga: Emakumearen erabateko parte-hartzea eta aukera-berdintasuna bermatzea.
- 5.6 jomuga: Sexu- eta ugalketa-osasunerako sarbidea eta ugalketa-eskubideak bermatzea.
- 5.A jomuga: Baliabide ekonomikoak eskuratzeko eskubide-berdintasuna bermatzea.
- 5.B jomuga: Teknologiaren eta IKTen erabilera hobetzea.
- 5.C jomuga: Berdintasunerako eta ahaldunderako politikak eta legeak onartzea.



- 6.1 jomuga: Edateko ura eskuragarri izatea lortzea.
- 6.2 jomuga: Saneamendu- eta higiene-zerbitzuetarako sarbidea lortzea.
- 6.3 jomuga: Uraren kalitatea hobetzea. Kutsadura eta hondakin-urak murriztea.
- 6.4 jomuga: Ur-baliabideen erabilera eraginkorra handitzea (ur geza ateratzea).
- 6.5 jomuga: Ur-baliabideen kudeaketa integrala inplementatzea.
- 6.6 jomuga: Urarekin lotutako ekosistemak babestea.
- 6.A jomuga: Kudeaketa-gaitasunen sorrera sustatzea.
- 6.B jomuga: Tokiko komunitateen parte-hartzea bultzatzea.



- 7.1 jomuga:** Energiarako sarbide unibertsala bermatzea.
- 7.2 jomuga:** Energia berriztagarriak gehitzea.
- 7.3 jomuga:** Energia-eraginkortasunaren tasa bikoiztea.
- 7.A jomuga:** Ikerketa eta energia garbietako inbertsioa areagotzea.
- 7.B jomuga:** Garapen-bidean dauden herrialdeetan azpiegitura eta teknologia gehitzea.



- 8.1 jomuga:** Hazkunde ekonomikoari eustea.
- 8.2 jomuga:** Produktibitatea handitzea dibertsifikazioaren, teknologiaren eta berrikuntzaren bidez.
- 8.3 jomuga:** Enpresa txiki eta ertainak sustatzea.
- 8.4 jomuga:** Ekoizpen eta kontsumo eraginkorra eta arduratsua hobetzea.
- 8.5 jomuga:** Enplegu osoa eta lan duina lortzea.
- 8.6 jomuga:** Lanik eta ikasketarik gabeko gazteak murriztea.
- 8.7 jomuga:** Haurren esklabotza, salerosketa eta lana desagerraraztea.
- 8.8 jomuga:** Lan-eskubideak eta lan segurua babestea.
- 8.9 jomuga:** Turismo jasangarria sustatzea.
- 8.10 jomuga:** Finantza-erakundeen gaitasuna indartzea.
- 8.A jomuga:** Garapen-bidean dauden herrialdeetako merkataritzarako laguntza handitzea.
- 8.B jomuga:** Gazteen enplegurako munduko estrategia garatzea.



- 9.1 jomuga:** Azpiegitura jasangarriak garatzea.
- 9.2 jomuga:** Industria inklusiboa eta jasangarria sustatzea.
- 9.3 jomuga:** ETEek finantza-zerbitzuetara eta balio-kateetara duten sarbidea handitzea.
- 9.4 jomuga:** Azpiegitura modernizatzea, teknologia garbia.
- 9.5 jomuga:** Ikerketa zientifikoa, gaitasun teknologikoa areagotzea.
- 9.A jomuga:** Azpiegitura jasangarri eta erresilienteak sustatzea.
- 9.B jomuga:** Teknologia, ikerketa eta berrikuntza garatzea.
- 9.C jomuga:** IKTetarako eta Internetarako sarbidea areagotzea.



- 10.1 jomuga: Biztanle pobreen diru-sarrerak % 40 gehitzea.
- 10.2 jomuga: Inklusio soziala, ekonomikoa eta politikoa sustatzea.
- 10.3 jomuga: Aukera-berdintasuna bermatzea.
- 10.4 jomuga: Zerga-arloko, soldata-arloko eta babes sozialeko politikak gauzatzea.
- 10.5 jomuga: Munduko finantza-merkatuen erregulazioa hobetzea.
- 10.6 jomuga: Garapen-bidean dauden herrialdeek nazioarteko finantza-erakundeetan eta nazioarteko erakundeetan parte hartzea.
- 10.7 jomuga: Migrazio eta migrazio-politika ordenatuak erraztea.
- 10.A jomuga: Tratu berezi eta berezituaren printzipioa aplikatzea (MME).
- 10.B jomuga: Garapen-bidean dauden herrialdeetarako finantza-korronteak sustatzea.
- 10.C jomuga: Diru-bidalketen kostuak murriztea.



- 11.1 jomuga: Etxebizitza eskuratzeko aukera bermatzea.
- 11.2 jomuga: Garraio publikorako sarbidea ematea.
- 11.3 jomuga: Urbanizazio inklusiboa eta jasangarria handitzea.
- 11.4 jomuga: Kultura- eta natura-ondarea babestea.
- 11.5 jomuga: Hondamendiek eragindako heriotzen kopurua murriztea eta kalteberatasuna murriztea.
- 11.6 jomuga: Hirietako ingurumen-inpaktua murriztea.
- 11.7 jomuga: Berdegune eta espazio publiko seguruetarako sarbidea ematea.
- 11.A jomuga: Hirien, hiri-periferien eta landa-eremuen arteko loturak sustatzea.
- 11.B jomuga: Hirietako hondamendi-arriskuak gehiago murriztea.
- 11.C jomuga: Gutxien Aurreratutako Herrialdeetan (GHA) eraikin jasangarri eta erresilienteak eraikitzen laguntzea.



- 12.1 jomuga: Kontsumo- eta produkzio-esparru jasangarriak aplikatzea.
- 12.2 jomuga: Baliabide naturalen erabilera eraginkorra lortzea.
- 12.3 jomuga: Elikagaiak gutxiago alferrik galtzea.
- 12.4 jomuga: Hondakinak eta produktu kimikoak kudeatzea.
- 12.5 jomuga: Hondakinak prebenitu, murriztu, birziklatu eta berrerabiltzea.
- 12.6 jomuga: Enpresetan jardunbide jasangarriak gauzatzea.
- 12.7 jomuga: Erosketa publiko jasangarriak.
- 12.8 jomuga: Garapen Jasangarrirako hezkuntza ziurtatzea.
- 12.A jomuga: Jasangarritasunerako zientzia eta teknologia indartzea.
- 12.B jomuga: Turismo jasangarria lortzea.
- 12.C jomuga: Erregai fosilentzako subsidioak arautzea.



- 13.1 jomuga:** Erresilientzia eta egokitzapena indartzea.
- 13.2 jomuga:** Klima-aldaketa politika, estrategia eta plan nazionaletan txertatzea.
- 13.3 jomuga:** Ingurumen-arloko hezkuntza eta sentsibilizazioa hobetzea.
- 13.A jomuga:** Baliabide ekonomikoak mobilizatzea.
- 13.B jomuga:** Gutxien aurreratutako herrialdeetan klima-aldaketa kudeatzea.



- 14.1 jomuga:** Itsasoko kutsadura prebenitzea eta murriztea.
- 14.2 jomuga:** Itsasoko eta kostaldeko ekosistemak kudeatzea.
- 14.3 jomuga:** Ozeanoen azidotzea minimizatzea.
- 14.4 jomuga:** Arrantza-ustiapen jasangarria arautzea.
- 14.5 jomuga:** Kostaldeko eta itsasoko eremuak kontserbatzea.
- 14.6 jomuga:** Legez kanpoko eta gehiegizko arrantza eragozteak.
- 14.7 jomuga:** Arrantza jasangarriaren onura ekonomikoak handitzea.
- 14.A jomuga:** Itsas ikerketa eta teknologia bultzatzea.
- 14.B jomuga:** Eskala txikiko eta artisau-arrantza sustatzea.
- 14.C jomuga:** Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa aplikatzea.



- 15.1 jomuga:** Ekosistemen kontserbazioa eta erabilera jasangarria ziurtatzea.
- 15.2 jomuga:** Basoak modu jasangarrian kudeatzea.
- 15.3 jomuga:** Desertifikazioaren aurka borrokatzea.
- 15.4 jomuga:** Ekosistema menditsuen kontserbazioa ziurtatzea.
- 15.5 jomuga:** Biodibertsitatearen degradazioaren eta galeraren aurkako neurriak hartzea.
- 15.6 jomuga:** Baliabide genetikoetarako sarbidea eta horiek egoki erabiltzea.
- 15.7 jomuga:** Ezkutuko ehiza eragozteak eta babestutako espezieak babestea.
- 15.8 jomuga:** Espezie inbaditzaileak prebenitzea.
- 15.9 jomuga:** Ingurumena babestuko duten planak txertatzea.
- 15.A jomuga:** Finantza-baliabideak mobilizatzea eta handitzea.
- 15.B jomuga:** Basoak kudeatzeko baliabideak handitzea.
- 15.C jomuga:** Ezkutuko ehizaren aurkako borroka babestea.



- 16.1 jomuga: Indarkeria mota guztiak murriztea.
- 16.2 jomuga: Haurren tratu txarrak, salerosketa eta esplotazioa desagerraraztea.
- 16.3 jomuga: Zuzenbide Estatuaren sustapena, justiziarako sarbidea.
- 16.4 jomuga: Finantza-korronteak eta legez kanpoko armak murriztea.
- 16.5 jomuga: Ustelkeria eta eroskeria murriztea.
- 16.6 jomuga: Erakunde eraginkor eta gardenak sortzea.
- 16.7 jomuga: Herritarren parte-hartzea sustatzea.
- 16.8 jomuga: Garapen-bidean dauden herrialdeek nazioarteko erakundeetan duten parte-hartzea indartzea.
- 16.9 jomuga: Nortasun juridikoaren eta jaiotzen erregistroaren proportzioa.
- 16.10 jomuga: Oinarrizko informazioa eta askatasunak eskuratzea.
- 16.A jomuga: Indarkeriaren prebentzioaren arloan erakundeak indartzea.
- 16.B jomuga: Legeak eta politikak sustatzea eta aplikatzea (Giza Eskubideak).



- 17.1 jomuga: Zerga-bilketarako etxeko baliabideak mobilizatzea.
- 17.2 jomuga: GLOren % 0,7a betetzea.
- 17.3 jomuga: Finantza-baliabide gehigarriak mobilizatzea.
- 17.4 jomuga: Zorra berregituratzea.
- 17.5 jomuga: Gutxien aurreratutako herrialdeetan inbertsioak sustatzea.
- 17.6 jomuga: Teknologiaren eskualdaketa hobetzea.
- 17.7 jomuga: Teknologia ekologikoki arrazionalak sustatzea.
- 17.8 jomuga: Teknologia-bankua sortzea.
- 17.9 jomuga: GJHak ezartzeko gaitasunak indartzea.
- 17.10 jomuga: Merkataritza aldeaniztun unibertsala sustatzea.
- 17.11 jomuga: Garapen-bidean dauden herrialdeen esportazioak handitzea.
- 17.12 jomuga: Merkaturako sarbidea garapen bidean dauden herrialdeentzat.
- 17.13 jomuga: Munduko egonkortasun makroekonomikoa handitzea.
- 17.14 jomuga: Politiken koherentzia hobetzea.
- 17.15 jomuga: Subiranotasun nazionala errespetatzea.
- 17.16 jomuga: Garapen jasangarrirako Munduko Aliantza hobetzea.
- 17.17 jomuga: Itun publiko-pribatuak sustatzea.
- 17.18 jomuga: Gaitasun estatistikoa sortzea.
- 17.19 jomuga: BPGtik haratago doazen adierazleak sustatzea.

>> 04

**GJH ETA DES-
GAITASUNA DU-
TEN PERTSONEN
ESKUBIDEEI BU-
RUZKO KONBEN-
TZIOA: BI TRESNA
ETA XEDE BERA**

Jarraian, Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren arteko azterketa konparatiboa egiten da, eremu bakoitzean aitortutako eskubideak eta horiek helburuen jomugetan duten lekua adieraziz:



1. helburua **POBREZIA DESAGERRARAZTEA**

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

1.1 jomuga: Muturreko **pobrezia desagerraraztea**.

Desgaitasuna duten pertsonen giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak bete-betean baliatzea eta gizartean erabat parte hartzea sustatzen bada, **pobrezia desagerrarazteko** aurrerapauso garrantzitsuak emango dira (Hitzaurrea)

1.2 jomuga: **Pobrezia** erlatiboa dimentsio guztietan **murritztea**.

Pobrezia murrizteko estrategiak izateko eskubidea (28.2 b art.)

1.3 jomuga: **Babes sozialerako** sistema eragileak ezartzea

Desgaitasuna duten pertsonen **babes soziala** izateko eskubidea eta horretaz baliatzeko eskubidea dute, desgaitasunagatik diskriminaziorik jasan gabe (28.2 art.)

1.4 jomuga: Oinarritzko zerbitzuetarako eta **finantza-baliabideetarako** sarbidea bermatzea.

Desgaitasunarekin zerikusia duten gastuak ordaintzeko Estatuaren laguntza eskuratzea (trebakuntza, aholkularitza, **finantza-laguntza**, aldi baterako zaintza-zerbitzu egokiak...) (28.2 c art.)

1.5 jomuga: Erresilientzia **ingurumen-hondamendietan**, hondamendi ekonomikoetan eta sozialetan.

Arrisku-egoeretan (gatazka armatuak, larrialdi humanitarioak eta **hondamendi naturalak**...) desgaitasuna duten pertsonen segurtasuna eta babesa bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dira (11. art.)



2. helburua **GOSERIK EZ**

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

2.1 jomuga: **Gosea** desagerraraztea.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

Desgaitasuna duten pertsonak eskubidea dute beraientzat eta beren familientzat egokia den bizitza-maila izateko, eta horren barruan sartzen dira **elikadura**, jantzi eta etxebizitza egokiak (28.1 art.)



3. helburua **OSASUNA ETA ONGIZATEA**

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

3.7 jomuga: **Sexu- eta ugalketa-osasunerako** eta familia-plangintzarako sarbidea bermatzea.

3.8 jomuga: **Estaldura unibertsala** eta senda-gaietarako sarbidea lortzea.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

Sexu- eta ugalketa-osasunerako programak eta arreta emango dira (25.a art.).

Biztanleei zuzendutako osasun publikoko programak egingo dira (25 a art.)



4. helburua

KALITATEZKO HEZKUNTZA

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

4.1 jomuga: **Lehen eta bigarren hezkuntzaren** kalitatea bermatzea.

Lehen eta bigarren hezkuntza inklusiboa, kalitatezkoa eta doakoa izateko eskubidea (24.2 b art.)

4.2 jomuga: **Eskolaurreko** hezkuntzarako sarbidea eta haren kalitatea bermatzea.

Estatu kideek hezkuntza-sistema inklusiboa ziurtatuko dute **maila guztietan** (24.1 art.)

4.3 jomuga: **Goi-mailako prestakuntzarako** berdintasunezko sarbidea bermatzea.

Goi-mailako hezkuntzarako, lanbide-heziketarako, helduen hezkuntzarako eta bizitza osoko ikaskuntzarako sarbide orokorra, diskriminaziorik gabe eta gainerakoen baldintza berberetan (24.5 art.)

4.5 jomuga: Genero-desberdintasuna eta kolektibo kalteberak **ezabatzea**.

Desgaitasunagatik hezkuntza-sistema orokorretik **baztertuak ez izatea** ziurtatuko da (24.2 a art.)

4.A jomuga: **Hezkuntza-instalazio** inklusiboak eta seguruak hobetzea.

Neurri egokiak hartuko dira **kanpoko eta barruko instalazioetarako** sarbidea ziurtatzeko, **adibidez, eskoletan** (9.1 a art.)

4.C jomuga: Irakasleen **prestakuntza** hobetzea.

Behar diren neurriak hartuko dira zeinu-hizkuntzan edo Braille sisteman **prestakuntza** duten irakasleak enplegatzeko (desgaitasuna duten irakasleak barne) eta hezkuntza-maila guztietan lan egiten duten profesionalak eta langileak prestatzeko (24.4 art.)



5. helburua GENERO- BERDINTASUNA

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

5.1 jomuga: Diskriminazioa **desagerraraztea**.

Guztiz **debequatuta dago** desgaitasuna duten emakumeen aurkako diskriminazioa, eta aukera- eta emaitza-berdintasuna sustatuko da. (3, I.9 Ohar Orokorra)

5.2 jomuga: **Genero-indarkeria mota guztiak** ezabatzea.

Neurri legegileak, administratiboak, sozialak, hezkuntzakoak eta bestelako neurri batzuk hartuko dira **esplotazio, indarkeria eta abusu mota guztien** aurka babesteko, generoarekin zerikusia duten alderdiak barne hartuta. (16.1 art.)

5.3 jomuga: Haurren ezkontza eta emakumeen **genitalen mutilazioa** ezabatzea.

Debequatuta daude **esterilizazio behartua**, abortu behartua eta adostu gabeko jaiotza-tasaren kontrol mota guztiak (3, V, 63 a Ohar Orokorra).

5.5 jomuga: **Emakumearen erabateko parte-hartzea eta aukera-berdintasuna** bermatzea.

Neurriak hartuko dira giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak **bete-betea eta baldintza berdinetan baliatzen direla** ziurtatzeko (6.1 art.)

5.6 jomuga: **Sexu- eta ugalketa-osasunerako** sarbidea eta ugalketa-eskubideak bermatzea.

Sexu- eta ugalketa-osasunerako programak eta arreta emango dira (25 a art.)

5.A jomuga: Baliabide ekonomikoak eskuratzeko eskubide-berdintasuna bermatzea.

Desgaitasuna duten emakumeen **ahalduntze ekonomiko** osoa lortzeko aukera emango duten neurriak ziurtatuko dira (3, II, 21 Ohar Orokorra)

5.C jomuga: Berdintasunerako eta **ahalduntzerako** politikak eta legeak onartzea.

Behar diren neurri guztiak hartuko dira emakumearen erabateko garapena, aurrerapena eta **sustapena** bermatzeko (6.2 art.)



6. helburua

UR GARBIA ETA SANEAMENDUA

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

6.1 jomuga: **Edateko ura** eskuragarri izatea lortzea.

6.2 jomuga: Saneamendu- eta higiene-zerbitzuetarako sarbidea lortzea.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

Edateko uraren zerbitzuak berdintasunez erabilizeko aukera bermatuko da (28.2 a art.)

Bizi-maila egokia izateko eskubidea, elikadura, jantzi eta etxebizitza egokiak barne, eta bizi-baldintzak etengabe hobetzeko eskubidea (28.1 art.)



8. helburua

LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

8.3 jomuga: Enpresa txiki eta ertainak **sustatz**ea.

8.5 jomuga: **Enplegu osoa** eta lan duina lortzea.

8.7 jomuga: Haurren **esklabotza**, salerosketa eta lana **desagerraraztea**.

8.8 jomuga: Lan-eskubideak eta **lan seguru**a babestea.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

Enpresa-aukerak (norberaren konturako enplegua, kooperatibak, eta enpresa propioak) **sustatuko dira** (27.1 f art.)

Askatasunez aukeratutako edo onartutako lanaren bidez bizimodua ateratzeko aukera izateko eskubidea bermatzea, lan-merkatu eta lan-inguru **ireki, inklusibo eta irisgarrian** (27.1 art.)

Esklabotasunaren eta morrontzaren **mende ez egotea** ziurtatuko da, eta nahitaezko edo derrigorrezko lanaren aurkako babes emango da (27.2 art.)

Lan-baldintza bidezkoak eta mesedegarriak izateko eta **lan-baldintza seguruak eta osasungarriak** izateko eskubideak babestuko dira (jazarpenaren aurkako babes barne), bai eta jasandako laidoengatiko erreparazioa jasotzeko eskubidea ere (27.1 b art.)



9. helburua

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

9.B jomuga: Teknologia, **ikerketa eta berrikuntza** garatzea.

9.C jomuga: **IKT**etarako eta **Interneterako** sarbidea areagotzea.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

Ikerketa eta garapena abiaraziko edo sustatuko dira, eta teknologia berrien (informazioaren eta komunikazioen teknologiak barne hartuta) erabilgarritasuna eta erabilera sustatuko dira (4.1 g art.)

Informazioaren eta komunikazioen sistemetarako eta teknologia berrietarako sarbidea (**Interneterako sarbidea barne**) sustatuko da (9.2 g art.)



10. helburua

DESDERDINTASUNAK MURRIZTEA

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

10.2 jomuga: Inklusio soziala, **ekonomikoa eta politikoa** sustatzea.

10.3 jomuga: **Aukera-berdintasuna** bermatzea.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

Ziurtatuko da desgaitasuna duten pertsonak beren bizilekua eta non eta norekin bizi nahi duten hautatzeko aukera izango dutela, gainerakoen baldintza berberetan, eta ez direla behartuak izango bizitza-sistema espezifiko baten arabera bizitzera. E ra berean, ziurtatu egingo da aukera izango dutela etxetz etxeko eta egoitzako laguntza-zerbitzuak eta komunitateari laguntzeko beste zerbitzu batzuk eskuratzeko, eta baita **komunitatean parte-hartzea** errazteko eta komunitatetik isolatzea edo bereiztea saihesteko beharrezkoa den laguntza pertsonala jasotzeko ere (19 a eta b art.)

Giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiak **berdintasun-baldintzetan** baliatzea sustatu, babestu eta bermatuko da (1. art.)



11. helburua

HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

11.1 jomuga: **Etxebizitza** eskuratzeko aukera bermatzea.

Bizi-maila egokia izateko eskubidea, eta horretarako **etxebizitza** egokiak eskuratu ahal izatea. Etxebizitza publikoko programetarako sarbidea bermatuko da (28.2 d art.)

11.2 jomuga: **Garraio publikorako** sarbidea ematea.

Garraiorako sarbidea ziurtatuko da, baldintza berdinetan (9.1 artikulua)

11.3 jomuga: **Urbanizazio** inklusiboa eta jasangarria areagotzea.

Eraikin, bide publiko, garraio eta kanpoko eta barruko beste instalazio batzuetara, hala nola eskoletara, etxebizitzetara, instalazio medikoetara eta lantokietara, baldintza berdinetan sartu ahal izatea bermatuko da (9.1 art.)

11.4 jomuga: **Kultura- eta natura-ondarea** babestea.

Garrantzi kultural nazionalako monumentu eta lekuetara sarbidea izateko eskubidea (30.1 c art.)

11.7 jomuga: Berdegune eta **espazio publiko seguru**etarako sarbidea ematea.

Neurri egokiak hartuko dira **jendearentzat irekita dauden edo erabilera publikokoak diren zerbitzu eta instalazioetarako** sarbidea ziurtatzeko, bai hiriguneetan, bai landa-guneetan (9.1 art.)



16. helburua

BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

16.1 jomuga: **Indarkeria** mota guztiak murriztea.

Legeria eta politika eraginkorrak onartuko dira, emakumearengan eta haurrengan oinarritutako legeria eta politikak barne, **esplotazioa, indarkeria eta abusuak** detektatu, ikertu eta, hala badagokio, epaitu egingo direla ziurtatzeko (16.5 art.)

16.2 jomuga: **Haurren tratu txarrak**, salerosketa eta esplotazioa desagerraraztea.

Behar diren neurri guztiak hartuko dira edozein esplotazio, indarkeria eta abusu eragozteko, eta besteak beste, laguntza emateko modu egokiak egon beharko dira desgaitasuna duten pertsonentzako, generoa eta **adina** kontuan hartuta (16.2 art.)

16.3 jomuga: Zuzenbide Estatuaren sustapena, **justiziarako sarbidea**.

Justiziarako sarbidea ziurtatuko da, gainera-koen baldintza berberetan (13.1 art.)

16.7 jomuga: **Herritarren parte-hartzea** sustatzea.

Bizitza politikoan eta publikoan **parte-hartze osoa eta eraginkorra** izatea ziurtatuko da, gainerako baldintza berberetan, zuzenean edo askatasunez aukeratutako ordezkarien bitartez (29 a art.)

16.9 jomuga: Nortasun juridikoaren eta **jaiotzen erregistroaren** proportzioa.

Jaio eta berehala inskripzioa egingo dela ziurtatuko da, eta jaiotzatik bertatik izango da eskubidea izen bat izateko, nazionalitatea eskuratzeko eta, ahal den neurrian, gurasoak eza-gutzeko eta haiek zaindua izateko (18.2 art.)

16.10 jomuga: Oinarrizko askatasunak eta **informazioa** eskuratzea.

Adierazpen- eta iritzi-askatasunerako eskubidea gauzatzeko neurri egoki guztiak hartuko dira, **informazioa** eta ideiak **bildu, jaso eta emateko** askatasuna barne, gainerako baldintza berberetan eta aukeratzen duten edozein komunikazio-moduren bidez (21. art.)



17. helburua

HELBURUAK LORTZEKO ALIAANTZA

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

17.17 jomuga: **Aliantza publiko-pribatuak** sustatzea.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

Nazioarteko lankidetzaren eta horren sustapenaren garrantzia aitortzen da, eta horri buruzko neurri egoki eta eraginkorrak hartuko dituzte estatuek, eta, hala dagokionean, elkarlanean arituko dira **nazioarteko eta eskualdeko erakundeekin eta gizarte zibilarekin**, bereziki desgaitasuna duten pertsonen erakundeekin (32.1 art.)

17.18 jomuga: Gaitasun **estatistikoa** sortzea.

Informazio egokia bilduko da, **estatistika- eta ikerketa-datuak** barne, politikak formulatu eta aplikatu ahal izateko, Konbentzio behar bezala gauza dadin (31.1 art.)

>> 05

KONBENTZIOA- REKIN ETA GJH- -EKIN BAT DATO- ZEN POLITIKAK SUSTATZEKO NEURRIEN DEKA- LOGOA



Jarraian, dekalogo gisa, Garapen Jasangarrirako Helburuak eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa hedatzeko, garatzeko eta horren betearazpenean aurrera egiteko burutu litezkeen ekintzak aipatuko ditugu:

1

Desgaitasunaren arloko politika publikoak GJHen helburu eta jomugekin eta Konbentzioaren printzipio, eskubide eta ikuspegiekin bateratzea.

2

Desgaitasunaren arloko lege-esparrua aztertzea GJHen eta Konbentzioaren betetze-maila zehazteko, eta helburuak modu eraginkorrean betetzeko erronkak eta ekintzak ezartzea.

3

GJHen eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren ezagutza sustatzea, ezagutza zabaltzeko eta ku-deatzeko jardueren bidez, batez ere desgaitasuna duten pertso-nen artean, giza eskubideen defentsan eta sustapenean ahaldun-du daitezen.

4

Desgaitasunaren arloko politika publikoen zeharkako ikuspegia bultzatzea, GJHen helburuen eta jomugen aniztasunarekin eta Konbentzioan ezarritako eskubideekin bat etorritz, desgaitasuna duten pertsonen herritartasun osoa aitortzeko.

5

Erakunde publikoek eta gizarte zibil antolatuak osatutako orga-noak eratzea GJHen eta Konbentzioaren betetze-mailaren jarrai-pena egiteko, hala nola desgaitasuna duten pertsonak ordezk-a-tzen dituzten erakundeak, lankidetzako gobernantza-eredu baten esparruan.

6 | GJHen eta Konbentzioaren jarraipenerako tresnak eta adierazleak diseinatzea, bien betetze-mailari eta bilakaerari buruzko etengabeko ebaluazioa egiteko.

7 | Gidaliburuak eta dibulgazio-dokumentuak egitea GJHen eta Konbentzioaren helburu, jomuga eta aitortutako eskubideen edukia eta ikuspegiak erakusteko.

8 | GJHen eta Konbentzioaren arloko prestakuntza-ekintzak garatzea hezkuntza-sistemaren maila guztietan, gizarte-kohesioaren erai-kuntzan aurrera egiteko bi tresna horiek duten garrantziaz kontzientziatzeko.

9 | Nazioarteko errealitate edo politikak ezagutzeko ekintzak egitea, hurbilagoko eremu batean GJHen helburu eta jomugekin eta Konbentzioan aitortutako eskubideekin lotutako ekintzak ezartzeko aukera emango dutenak.

10 | 2030 Agendaren berezko epealditik harago, oinarriak ezartzea helburuetan, jomugetan eta eskubideetan aurrera egingo dela bermatzeko.



Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gizarte Politikako
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Políticas Sociales